

Bizitza eta Osasuna erdigunera. Baliabide nahikorik gabe, kalitatezko UPV/EHUrik ez

Gaur, irailak 14, Ikasturte irekiera ofiziala burutu da Bilboko Bizkaia Aretoan, Errektore eta bere taldeko kideak, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria eta Hezkuntza Sailburua, EAEko gizartearen eta UPV/EHUren hainbat ordezkari eta kide bertan izan direlarik.

Gogorra izaten ari da pandemiaren ondorioz jasaten ari garena euskal gizartearen (osasungintzan, nagusien egoitzetan, komertzio txikian, bihar Greba egingo duen hezkuntza ez-unibertsitarioan), baina baita UPV/EHUren ere. Nahiz eta horren inguruko datuak eskatu ditugun, ez dakigu EHUko zenbat langile kutsatu diren orain arte. Baina jakin badakigu, **zenbait langile Covid 19ak kutsatuak izan direla: garbiketakoak, administrazio eta zerbitzuetoakoak, zaurgarriak** izanik telelanean jardutea ukatu zitzaizkien "normaltasun berria"-ren ondorioz lan presentzialera itzultzera behartu gintuztenez... Guk ospitaleratze kasu gogorrek eta ez hain larriak izan diren zenbaiten berri izan dugu. Lehenik eta behin, **haiekiko gure elkartasun eta animoak helarazi nahi dizkiegu**, ahalik lasterren guztiz osaturik egon daitezzen opa egiten diegularik.

Horregatik, EHUko LABekook, **guztion bizitzak eta osasuna erdigunera ekarri** nahi ditugu, honako neurriak aldarrikatuz:

- PCR testak unibertsitate komunitatearen kideei egitea.
- Lan-Ikuskaritzak, LABek sartutako salaketari erantzunez adierazitako lanpostu guztietako **langileen arriskuen ebaluazioa eguneratzea**.
- **Langile zaurgarriei** babes berezia ematea, **telelanean jarduteko aukera** eskainiz.
- Izango diren **kasu positiboen kontaktuak detektatzeko pertsonal gaitua** jartzea.
- EHUko Prebentzio Zerbitzuak pairatzen duen **langile eskasia gainditzeko neurri adostuak martxan jartzea**.

Bestetik, EHUko Errektore eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari eta Hezkuntza Sailburuari gure erkidego autonomoko unibertsitate publikoaren **lan-baldintza duinak bermatzea** eskatzen dizkiegu, besteak beste:

- Egun, EHUko langileok pairatzen dugun **lan-prekarioaren pandemiari aurre egiteko neurri eraginkorrak** bermatzea: **egonkortasuna** aitortuz urte asko kontraturik kontratu dabilzan langileei, **Lan Eskaintza Publiko bermedunak** planteatuz, ...
- Programa-kontratuei lotutako **Lanpostuen Zerrendatik (LPZ) kanpoko kontratuak LPZkoak bilakatzeko konpromisoa gauzatzea**.
- **Zaintza lanak eta telelana errazteko sindikatuarekin hitzarmen berria** adostea.
- **Enplegu kopurua ez galtzeko**, irakasleen zein administrazio eta zerbitzuetoako (AZP) langileen **ordezkapenak bermatzea eta eginbehar berriei heltzea**.
- UPV/EHUko langile guztien (Irakasle, Ikerlari, AZPko langile, doktore aurreko ikerlari...) **lan-sariak hobetzeko behar besteko diru-sarrerak bideratzea**, soldatak gutxitzea edota izoztea alboratuz.

Azkenik, unibertsitate publikoak EAEko unibertsitate sisteman duen lehentasunezko papera betetzen jarraitu ahal izateko **finantziario handiagoa bideratzea** eskatzen dio Jaurlaritzari berriari EHUko LABek. Finantziario handiagoa duela urte asko **Medikuntza Fakultatea** Bilbon eraikiko zela konpromiso hartu zenetik errealitate bilakatzeko, atzerapen gehiagorik gabe. Gero eta ikasle euskaldun gehiago duen EHU **euskararen normalizazioan**, gizon eta emakumeen arteko **berdintasunean** zein **jasangarritasunean neurri eraginkorrak** martxan jarri ahal izateko. EHUko **azpiegituren modernizazioan beharrezko inbertsioak** egiteko. **Langile guztion segurtasuna eta osasuna** bermatzeko. Eta Euskal Herriari behar dituen ekarpenak egiteko **merezi duen unibertsitate publikoa** izan dezan.